



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2005eko irailaren 27a.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena

HASIERA-ORDUA: 19:00 **AMAIERA-ORDUA:** 19:45

BERTARATUAK:

Alkatea

Mirari Arruabarrena Elizalde

Zinegotziak

Eneko Olariaga Arruti, Ramon Etxeberria Aldaz,
M. Jose San Sebastian Aranburu, Martxiel Genoba
Solaberrieta, Ainhoa Leunda San Sebastian, Noemi
Ostolaza Arkauz, M^a Elena Legarra Alfaro, Eugenio
Cotado Iturain, Aurora Azkue Mujika eta Jesus Jose
Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi



Aztergai zerrenda

1. Hauteskunde-Batzorde Zentralak EAJ-PNV/EA alderdi-koalizioko AINHOA LEUNDA SAN SEBASTIANen alde luzatu duen zinegotzi kredentzialaren berri ematea. Kredentzian adierazten da zinegotzi izendatua izan dela. Hori guztia, Ainhoa Leunda San Sebastian zinegotzi karguaz jabetu dadin.
2. Onartzea, egoki bada, 2005eko abuztuaren 30eko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
3. Onartzea, egoki bada, 2006ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko diren Ordenantza Fiskalen aldaketak.
4. Onartzea, egoki bada, araupeko aparkalekuaren udal zerbitzuaren Ordenantza Erregulatzailea.
5. Ebazpena, egoki bada, HARRIBIL DANTZA TALDEAK eskatutako Ekonomia Jardueraren Gaineko Zerga salbuespena.
6. Onartzea, egoki bada, Orioko "Hondartza" A.I.U.3ko U.E. 3.2. hirigintza-jarduerarako eremuko 10,11,12,13 eta 14 zenbakiko partzelak edo finkak enkante publikoaren bidez arautuko duten Plegu Baldintza Ekonomiko-Administratiboak.
7. Onartzea, egoki bada, Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Bikamiyota sektorearen "Villa Uri-Berri" eraikinaren planeamenduari eta kudeaketari dagokion Hirigintzako hitzarmenaren testua eta Alkatetza-Lehendakartzari ahalmen osoa ematea hitzarmena sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.
8. Onartzea, egoki bada, "Orioko Bariko San Nikolas Parrokia-Elizarekin" sinatu beharreko agiriaren testua. Agiri horretan "Orioko San Nikolas Kaleko 8. zenbakiko eraikinaren Birgaitze" lanei dagokien finantzazio eta agintekidetzak arauen baldintzak ezartzen dira, eta Alkatetza-



Lehendakaritzari ahalmen osoa ematea hitzarmena sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.

1. Adostasunezko deuseztatzea, egoki bada, “HYDRA GESTION DEPORTIVA SL” merkataritza-erakundearekin sinatutako administrazio-kontratua, KARELA KIROLDEGIKO kirol instalazioen kudeaketa integrala egiteko.
2. Onartzea, egoki bada, KARELA KIROLDEGIKO kirol instalazioen kudeaketa integralaren emakida esleitzeko lehiaketa arautuko duten Baldintza-Agiri Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboak.
3. Onartzea, egoki bada, Azurza Etxeko Udal Babespeko apartamentuen ostatu eta bizikidetzaz zerbitzuen Udal Araudia.
4. Eskariak eta Galderak.



Esan-eginak

1 . HAUTESKUNDE-BATZORDE ZENTRALAK EAJ-PNV/EA ALDERDI-KOALIZIOKO AINHOA LEUNDA SAN SEBASTIANEN ALDE LUZATU DUEN ZINEGOTZI KREDENTZIALAREN BERRI EMATEA. KREDENTZIALEAN ADIERAZTEN DA ZINEGOTZI IZENDATUA IZAN DELA. HORI GUZTIA, AINHOA LEUNDA SAN SEBASTIAN ZINEGOTZI KARGUAZ JABETU DADIN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ainhoa Leunda San Sebastian zinegotzi karguaz jabetzen da, bere eskubide eta betebeharrak guztiekin.

2. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2005EKO ABUZTUAREN 30EKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

ONARTZEA, 2005eko abuztuaren 30eko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.



3. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2006KO URTARRILAREN 1EAN INDARREAN SARTUKO DIREN ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2005eko irailaren 20an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, Arruabarrena (EAJ-PNV/EA) Olariaga (EAJ-PNV/EA), Etxeberria (EAJ-PNV/EA), Genova (EAJ-PNV/EA), Leunda (EAJ-PNV/EA), Ostolaza (EAJ-PNV/EA), San Sebastian (EAJ-PNV/EA), Legarra (EAJ-PNV/EA), Azkue (EAJ-PNV/EA) eta Cotado ((EAJ-PNV/EA) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO HAMAR BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren abstentzio botoarekin, guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA 2006ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko diren Ordenantza Fiskalen eta dagozkion eranskinen aldaketari.

2.- Hartutako erabakia eta horretarako osatu den espedientea informazio publikora jartzen dira, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Ogasunak Arautzeari buruzkoak, 16.1 artikuluan xedatzen duena betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz. Hori guztia honako araei jarraituz:

a)Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko Idazkaritzan.

b)Aztertzeko eta, kasua balitz, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegunetako, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera kontatuta, bulego orduetan.

c)Erreklamazioak aurkeztea zilegi zaienak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak 17. artikuluan aipatzen dituenak.

d)Aurkezteko tokia: Udaletxeko Sarreren Erregistro Nagusian. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoa), 38.4 artikuluan, seinalatzen dituen lekuetan ere aurkez daitezke.



e) Errekurtsoa sartzeko organoa: Udal Plenoa.

Behin informazio honen erregelamenduzko epea amaituta, inolako erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez bada, behin-betikotzat joko dira hartutako erabakiak eta aldatutako Ordenantzen eranskinak, beste erabakirik hartu beharrik izan gabe.

4. ONARTZEA, EGOKI BADA, ARAUPEKO APARKALEKUAREN UDAL ZERBITZUAREN ORDENANTZA ERREGULATZAILEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2005eko irailaren 20an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, Arruabarrena (EAJ-PNV/EA) Olariaga (EAJ-PNV/EA), Etxeberria (EAJ-PNV/EA), Genova (EAJ-PNV/EA), Leunda (EAJ-PNV/EA), Ostolaza (EAJ-PNV/EA), San Sebastian (EAJ-PNV/EA), Legarra (EAJ-PNV/EA), Azkue (EAJ-PNV/EA) eta Cotado ((EAJ-PNV/EA) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO HAMAR BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren abstentzio botoarekin, guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

1.- HASIERAKO ONESPENA EMATEA araupeko aparkalekuaren udal zerbitzuaren ordenantza erregulatzailerari.

2.- Erregimen Lokaleko Oinarrien Arautzaile den apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49 artikuluan ezartzen dena betez, herria jakinaren gainean jartzen da interesatu orok 30 lanegunetan zehar bere erreklamazio eta oharrak egin ditzan Udalaren aurrean. Adierazi Udal Ordenantza interesatuen eskuerara egongo da Udaletxeko Idazkaritzan lanegun guztietako lanorduen barne (astelehenetik ostiralera 08:30etatik 14:30etara), aldi berean adierazten da akordio horri buruz adierazi epean zehar ez bada ez erreklamaziorik ez oharrik egiten behin betiko onartutzat joko dela adierazitako Udal Ordenantza.



5. EBAZPENA, EGOKI BADA, HARRIBIL DANTZA TALDEAK ESKATUTAKO EKONOMIA JARDUERAREN GAINEKO ZERGA SALBUESPENA.

Jarraian Udalbatzarrak “Harribil Dantza Taldeak” aurkeztutako idatziaren berri du, Udal bulegoetan sarrera data 2005eko irailaren 20an eta sarrera zenbakia 1.103 izanik, Ekonomia Jardueraren Gaineko Zergaren Salbuespena eskatuz, urriaren 28ko 6/1997 Foru Arauan ezarritakoaren arabera, apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arautzailea aldatzen duena, Ekonomia Jardueraren Gaineko Zergaren Testu Bategina onartzen duena.

Izanik, urriaren 28ko 6/1997 Foru Arauak apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arautzailearen 5. artikulua aldatzen duela, g) hizkia duen sarrera berri bat erantsiz 1 atalean; honela dio hitzez hitz sarrera berriak:

“ g) Irabazi asmorik gabeko elkarteak, dagokion Elkarte Erregistroan izena emanda, Udalerriarekin elkarlan ekintzak egiteagatik eskumen duen organoak elkarte horiek udal interesdunak izendatuak izan daitezela.

Salbuespenak elkartearen ekintza zehatzak hartuko ditu kontuan, gutxieneko udal kuota erantsi ondoren.

Izanik, aipatu 6/1997 Foru Arauaren artikulua bakarraren 3. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, dagokion Udalaren aldetik salbuespenaren emakida Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinarazi beharko zaio, eta Udalak ez du luzatu beharrik izango aldez aurreko txosten teknikoa, beraz, aipatutako arrazoia medio, salbuespenaren emakida soilik Gipuzkoako Foru Aldundiko Udal Zerga Zerbitzuan jakinarazi beharko da.

Kontuan hartuz, “**HARRIBIL DANTZA TALDEA**” elkarteak Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan izena emanda dagoela 1998ko apirilaren 21etik, ekintza kulturak nagusia euskal dantzen zabalkundea eta kontserbazioa izanik.



Kontuan hartuz, **“HARRIBIL DANTZA TALDEA”** elkarteak Orioko Udalarekin lankidetzak ekintzak egiten dituela, Orioko Udalaren aldetik udal interesekoak aitortuak.

Ikusita, urriaren 28ko 6/1997 Foru Araua, apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arautzailea aldatzen duena, Ekonomia Jardueraren Gaineko Zergaren Testu Bategina onartzen duena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta luzatutako eskariaren arabera, gaia eztabaidatu ondoren, Arruabarrena (EAJ-PNV/EA) Olariaga (EAJ-PNV), Cotado ((EAJ-PNV/EA)), Ostolaza (EAJ-PNV/EA), Legarra (EAJ-PNV/EA), San Sebastian (EAJ-PNV/EA), Etxeberria (EAJ-PNV/EA), Genova (EAJ-PNV/EA), Azkue (EAJ-PNV/EA) eta Leunda (EAJ-PNV/EA) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO HAMAR BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren abstentzio botoarekin, guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

1.- ONARTZEA “HARRIBIL DANTZA TALDEA” elkarteari, identifikazio fiskaleko kodean G-20885471 zenbakiduna, Ekonomia Jardueraren Gaineko Zergaren salbuespena, elkartearen ekintza zehatzak hartuko ditu kontuan, gutxieneko udal kuota erantsi ondoren.

2.- IGORTZEA udalbatzarraren akordio honen ziurtagiri literal bat Gipuzkoako Foru Aldundiko Udal Zerga Zerbitzuaren Fiskalitatea eta Zergen Departamendura, jakinaren gainean izan daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

6. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO “HONDARTZA” A.I.U.3KO U.E. 3.2. HIRIGINTZA-JARDUERARAKO EREMUKO 10,11,12,13 ETA 14 ZENBAKIKO PARTZELAK EDO FINKAK ENKANTE PUBLIKOAREN BIDEZ ARAUTUKO DUTEN PLEGU BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2005eko irailaren 19an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

ONARTZEA Orioko “Hondartza” A.I.U.3ko U.E. 3.2. Hirigintza-Jarduerarako eremuko 10,11,12,13 eta 14 zenbakiko partzelak edo finkak enkante publikoaren bidez arautuko duten Plegu Baldintza Ekonomiko-Administratiboak.

Herri Administrazioen Kontratuen Legearen eraberritutako testua onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legearen 78. artikulua xedatutakoaren arabera, argitaratu egiten da baldintza orrien laburpen hau:

1.Erakunde adjudikatzailea:

- a)Erakundea: Orioko Udala.
- b)Espedientea bideratuko duen departamentua: Idazkaritza-Kontuhartzailtza.

2.Kontratuaren helburua:

- a)Helburuaren azalpena: Orioko «Hondartza» A.I.U.3ko U.E. 3.2. Hirigintza-Jarduerarako Eremuko 10, 11, 12, 13 eta 14 zenbakiko partzelak edo finkak Enkante Publikoan saltzea.

3.Adjudikazioaren tramitazioa, prozedura eta era:

- a)Tramitazioa: Arrunta.
- b)Prozedura: Irekia.
- c)Era: Enkante Publikoa.

4.Enkanterako oinarrizko prezioa:



Udal jabetzako aipatutako partzelak saltzeko enkanterako oinarrizko prezioa 4.507.590,78 eurokoa da, eta ez du barne hartzen BEZik, ezta esleipendunaren kontura doazen notaritzako gastuak eta jabetzako erregistroko gastuak.

5. Bermeak:

- a) Behin-behinekoa: 90.000 euro.
- b) Behin-betikoa: Esleipendunaren behin behineko bermea bahiturik egongo da salmenta prezioa ordaintzen duen arte.

6. Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontura izango dira.

7. Kontratistak bete behar dituen baldintza bereziak:

Baldintza ekonomikoak eta administratiboak datozen orrietako 9. artikuluan adierazitakoak.

8. Eskaintzen gaineko datuak:

- a) Aurkeztu beharreko agiriak: Baldintza ekonomikoak eta administratiboak datozen orrietako 11. artikuluan adierazitakoak.
- b) Zenbat denboran eutsi behar dion lehiatzaileak eskaintzari: 3 hilabete.

9. Agiriak eta argibideak jaso nahiz eskaintzak aurkezteko tokiak:

Orioko Udala.

Herriko Enparantza, 1. 20810 Orio.

10. Epeak:

- a) Agiriak eta argibideak jaso nahiz eskaintzak eta eskabide orriak aurkezteko epe muga: 20 eguneko, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 8:30etatik 14:30tara.
- b) Eskaintzak irekitzeko eguna eta ordua: Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo hirugarren laneguneko 12:00etan. Egun hori larunbata tokatuz gero, hurrengo lanegunera pasako da.



7 . ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDUAREN ARAU SUBSIDIARIOEN BIKAMIYOTA SEKTOREAREN “VILLA URI-BERRI” ERAIKINAREN PLANEAMENDUARI ETA KUDEAKETARI DAGOKION HIRIGINTZAKO HITZARMENAREN TESTUA ETA ALKATETZA-LEHENDAKARITZARI AHALMEN OSOA EMATEA HITZARMENA SINATZEKO, ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2005eko irailaren 19an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

ONARTZEA Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Bikamiyota sektorearen “Villa Uri-Berri” eraikinaren planeamenduari eta kudeaketari dagokion hirigintzako hitzarmenaren testua eta Alkatetza-Lehendakaritzari ahalmen osoa ematea hitzarmena sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.

8. ONARTZEA, EGOKI BADA, “ORIOKO BARIKO SAN NIKOLAS PARROKIA-ELIZAREKIN” SINATU BEHARREKO AGIRIAREN TESTUA. AGIRI HORRETAN “ORIOKO SAN NIKOLAS KALEKO 8. ZENBAKIKO ERAIKINAREN BIRGAITZE” LANEI DAGOKIEN FINANTZAZIO ETA AGINTEKIDETZA ARAUEN BALDINTZAK EZARTZEN DIRA, ETA ALKATETZA-LEHENDAKARITZARI AHALMEN OSOA EMATEA HITZARMENA SINATZEKO, ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak 2005eko irailaren 26an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

ONARTZEA “Orioko Bariko San Nikolas Parrokia-Elizarekin” sinatu beharreko agiriaren testua. agiri horretan “Orioko San Nikolas kaleko 8. zenbakiko eraikinaren birgaitze” lanei dagokien finantzazio eta agintekidetzara arauen baldintzak ezartzen dira, eta Alkatetza-Lehendakartzari ahalmen osoa ematea hitzarmena sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.

9. ADOSTASUNEZKO DEUSEZTATZEA, EGOKI BADA, “HYDRA GESTION DEPORTIVA SL” MERKATARITZA-ERAKUNDEAREKIN SINATUTAKO ADMINISTRAZIO-KONTRATUA, KARELA KIROLDEGIKO KIROL INSTALAZIOEN KUDEAKETA INTEGRALA EGITEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Kiroletako Batzorde Informatzaileak 2005eko irailaren 21ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, Arruabarrena (EAJ-PNV/EA) Olariaga (EAJ-PNV/EA), Etxeberria (EAJ-PNV/EA), Genova (EAJ-PNV/EA), Leunda (EAJ-PNV/EA), Ostolaza (EAJ-PNV/EA), San Sebastian (EAJ-PNV/EA), Legarra (EAJ-PNV/EA), Azkue (EAJ-PNV/EA) eta Cotado ((EAJ-PNV/EA) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO HAMAR BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren abstentzio botoarekin, guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

ADOSTASUNEZKO DEUSEZTATZEA “Hydra Gestion Deportiva S.L.” merkataritza-erakundearekin sinatutako administrazio-kontratua, Karela kiroldegiko kirol instalazioen kudeaketa integrala egiteko.



Jesús Rodríguez Pousa zinegotziak hitza hartzen du eta adierazten du abstentzio botoa eman zuela esanaz enpresa honek larrialdian bakarrik uzten gaituela, orain gutxi kontratuaren luzapena sinatu zenean sei urtetarako. Esan du ez zaiola kontratu desagitea gustatzen, eta ongi aztertu beharko omen dira kontratu baldintzak esleipendun enpresa berriarekin.

10. ONARTZEA, EGOKI BADA, KARELA KIROLDEGIKO KIROL INSTALAZIOEN KUDEAKETA INTEGRALAREN EMAKIDA ESLEITZEKO LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA-AGIRI JURIDIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Kiroletako Batzorde Informatzaileak 2005eko irailaren 21ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

ONARTZEA Karela Kiroldegiko kirol instalazioen kudeaketa integralaren emakida esleitzeko lehiaketa arautuko duten Baldintza-Agiri Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboak.

11. ONARTZEA, EGOKI BADA, AZURZA ETXEKO UDAL BABESPEKO APARTAMENTUEN OSTATU ETA BIZIKIDETZA ZERBITZUEN UDAL ARAUDIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gizarte-Ongizateko Batzorde Informatzaileak 2005eko ekainaren 15ean eta irailaren 27an emandako diktamenen bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, Arruabarrena (EAJ-PNV/EA) Olariaga (EAJ-PNV/EA), Etxeberria (EAJ-



PNV/EA), Genova (EAJ-PNV/EA), Leunda (EAJ-PNV/EA), Ostolaza (EAJ-PNV/EA), San Sebastian (EAJ-PNV/EA), Legarra (EAJ-PNV/EA), Azkue (EAJ-PNV/EA) eta Cotado ((EAJ-PNV/EA) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO HAMAR BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren abstentzio botoarekin, guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**

1. LEHEN ONARPENA EMATEA Azurza Etxeko Udal Babespeko apartamentuen ostatu eta bizikidetzaz zerbitzuen Udal Araudiari.

2.- Erregimen Lokaleko Oinarrien Arautzaile den apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49 artikuluan ezartzen dena betez, herria jakinaren gainean jartzen da interesatu orok 30 lanegunetan zehar bere erreklamazio eta oharra egin ditzan Udalaren aurrean. Adierazi Udal Araudia interesatuen eskuera egongo da Udaletxeko Idazkaritzan lanegun guztietako lanorduen barne (asteleheneetik ostiralera 08:30etatik 14:30etara), aldi berean adierazten da akordio horri buruz adierazi epean zehar ez bada ez erreklamaziorik ez oharrik egiten behin betiko onartutzat joko dela adierazitako Udal Araudia.

12. ESKARIAK ETA GALDERAK

Ez ziren izan.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio, publikoan zeuden batzuk hitza hartu ondoren, eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA